

# organo

## erromantikoaren



### nazioarteko

### XXIII. ZIKLOA

XXIII Ciclo internacional  
de órgano romántico

César Franck-i omenaldia  
bere jaiotzaren 200. urteurrenean



AZKOITIA

Amabirjinaren  
Jasokundearen Parroquia

urriak / octubre  
8, 15, 22  
[ 20:00 ]



Bergara

Santa Marina  
Parroquia



urriak / octubre  
8, 15, 22, 29  
[ 20:00 ]



LOIOLA AZPEITIA

Loiolako  
Basilika



urriak / octubre  
7, 14, 21  
[ 20:00 ]



Azpeitia  
Denontzat



Fray Joseph  
Echevarría  
Elkartea

# AZKOITIA

Urriak **8** larunbata

20:00 ..... 04-05 orrialdeak  
LIDIA KSIAZKIEWICZ organista

Urriak **15** larunbata

20:00 ..... 06-07 orrialdeak  
RUDOLF MÜLLER organista  
MARIA MOKHOVA organista

Urriak **22** larunbata

20:00 ..... 08-10 orrialdeak  
ANA BELEN GARCIA organista  
EASO ahots mistoen abesbatza

# BERGARA

Urriak **8** larunbata

20:00 ..... 12-15 orrialdeak  
AITOR OLEA organista  
BERGARAKO MUSIKA ESKOLAKo haurrak  
eta ORFEOI GAZTEAren ahots zuriak

Urriak **15** larunbata

20:00 ..... 16-18 orrialdeak  
ALIZE MENDIZABAL organista  
MONICA MELCOVA organista

Urriak **22** larunbata

20:00 ..... 20-22 orrialdeak  
IGNACIO ARAKISTAIN organista  
PEIO IRIGOIEN txistua

Urriak **29** larunbata

20:00 ..... 24-25 orrialdeak  
ORGANO IKASLEEN KONTZERTUA

# AZPEITIA (Loiola)

Urriak **7** ostirala


20:00 ..... 26-27 orrialdeak  
DAVID CASSAN organista

Urriak **14** ostirala

20:00 ..... 28-30 orrialdeak  
LORETO F. IMAZ organista  
ITZIAR URBIETA organista

Urriak **21** ostirala

20:00 ..... 32-34 orrialdeak  
XABIER URTASUN organista  
RITA MORAIS sopranoa



# KONTZERTUA:

AZKOITiko Amabirjinaren  
Jasokundearen Parrokian  
urriak 8, 20:00etan

## EGITARAUA:

Fantasie en Ut op. 16..... *César Franck*

Trois danses ..... *Jehan Alain*  
(Joies, Deuils, Luttes)

Milonga del Angel..... *Astor Piazzolla*

Fracanapa ..... *Astor Piazzolla*

Libertango ..... *Astor Piazzolla*

Organista: **LIDIA KSIAZKIEWICZ**



# LIDIA KSIAZKIEWICZ organista

1977an jaio zen Poznan-en, Polonian; 5 urterekin piano-ikasketak hasi zituen eta 20 urterekin organo-ikasketak. Bydgoszcz eta Poznango akademietan emaitza bikainak lortu zituen: goi-mailako hezkuntzako diplomak jaso zituen, hurrenez hurren, pianoan (lehen saria) eta organoan (lehen saria ohoreekin). Nazioarteko zerbairi lehiaketetan ere sari batzuk jaso zituen, hauen artean: Varsoviako XX. mendeko Nazioarteko Musika Lehiaketako lehen saria 1994an, Italiako Riminiko Organoaren Nazioarteko Lehiaketako lehen saria (2004).

Handik Frantziara joan zen perfektzionatzera.

Dagoeneko emanaldiak egin ditu Europako herrialde askotan (Frantzia, Polonia, Luxemburgo, Holanda, Alemania, Italia, Txekiar Errepublika, Italia, Eslovakia, Albania, Danimarka, Austria, Espania).

Piano-jotzaile eta organista gaitua izateaz gain, Lidia Ksiazkiewicz pedagogia-azterlan luzeak egin ditu (organo eta piano irakaskuntzan titulu nazionala), eta liburu bat argitaratu zuen, piano erromantikoaren teknikak organorako errepertorioan egindako ekarpenari buruzkoa.

Solista gisa, Eslovaquia eta Poloniako orkestra sinfonikoekin aritu izan da.

Lidia Ksiazkiewicz gaur egun Laongo katedraleko organo handia jotzen du eta Estrasburgoko Kontserbatorioan irakasten du.

Nacida en 1977 en Poznań, Polonia, comenzó sus estudios de piano a la edad de 5 años y órgano a la edad de 20. Después de brillantes estudios en las academias de Bydgoszcz y Poznań donde obtuvo los diplomas de educación superior de piano (primer premio) y órgano (primer premio con honores), respectivamente, recibió otros honores en competiciones internacionales, entre otros: primer Premio en la competencia internacional de música del siglo XX de Varsovia en 1994, primer premio en la competencia Internacional de Órgano de Rimini en Italia (2004).

De ahí fué a Francia para perfeccionarse

Ya ha dado en muchos países europeos (Francia, Polonia, Luxemburgo, Holanda, Alemania, Italia, República Checa, Italia, Eslovaquia, Albania, Dinamarca, Austria, España).

Además de su pianista y organista capacitado, Lidia Ksiazkiewicz ha realizado extensos estudios de pedagogía (título nacional en la enseñanza de órgano y piano) y publicó un libro sobre la contribución de la técnica del piano romántico con repertorio para órgano.

Como solista ha trabajado con orquestas sinfónicas en Eslovaquia y Polonia.

Lidia Ksiazkiewicz actualmente tiene el gran órgano de la catedral de Laon y enseña en el Conservatorio de Estrasburgo.

## KONTZERTUA:

AZKOITiko Amabirjinaren  
Jasokundearen Parrokian  
urriak 15, 20:00etan

### EGITARAUA:

Trilogie for Organ Duet ..... *Denis Bédard (\*1950)*

Cortège

Rêverie

Danse

Concerto for Oboe and Violin BWV 1060 ..... *Johann Sebastian Bach (1685-1750)*  
(transcribed for organ duo by Rudolf Müller)

Allegro

Adagio

Allegro

Variations On An Easter Theme ..... *John Rutter (\*1945)*

From Rhapsody: ..... *Naji Hakim (\*1955)*

Andante sostenuto

Vivace

Andante tranquillo

Der Mond ist aufgegangen ..... *Zsolt Gárdonyi (\*1946)*

Final: Allegretto non troppo ..... *César Franck (1822-1890)*

From Symphonie pour Orchestre ..... *César Franck (1822-1890)*  
(transcribed for organ duo by Rudolf Müller)



## ORGELDUO SPRIT organistak

Maria Mokhova y Rudolf Müller fundaron el Orgelduo Esprit en 2007, con un concierto ofrecido en el monasterio de Mariannhill en Würzburg (Alemania).

El contacto entre ambos músicos se produjo durante sus estudios con el profesor Martin Sander en la Universidad de Música de Fráncfort.

Maria Mokhova pianoa eta organoa Nizhni Novgorod-en ikasi, eta Frankfurten and Heidelberg-en jarraitu zuen.

Mariannhill monasterioan emandako kontzertua zela eta.

Martin Sander irakasle zutela hasi zen bien arteko harremana, Frankfurteko Musika Unibertsitatean.

Maria Mokhova completó sus estudios de piano y órgano en Nizhni Nóvgorod y continuó en Fráncfort y Heidelberg. Es profesora de órgano en la Universidad de Música de Heidelberg.

Rudolf Müller musika erlijiosoa eta kontzerturako organoa ikasi zuen, Frankfurten. Musika erlijiosoa eta kontzerturako organoa jotzen du, Würburgeko Mariannhill monasterioan. Biek eskaintzen dituzte kontzertuak nazioarteko musika-jaialdietan, eta hainbat sari irabazi dituzte nazioarteko organo-lehiaketetan.

Duoaren repertoirean sartzen da XVI. mendetik gaur egunera arteko lau eskutara jotzeko organo-musika, besteak beste inoiz argitaratu gabeko obrak eta orkestra-lanen moldaerak, bai eta bi organorentzako musika ere.

Rudolf Müller estudió música sacra y órgano en Fráncfort. Es músico y organista en el monasterio de Mariannhill en Würzburg. Ambos ofrecen conciertos en festivales de música internacionales y han ganado numerosos premios en competiciones internacionales de órgano.

El repertorio de este dúo abarca música para órgano que va desde el siglo XVI hasta nuestros días, e incluye obras inéditas y adaptaciones de obras orquestales, así como música para dos órganos.

### ORGELDUO SPRIT

Organista: RUDOLF MÜLLER eta MARIA MOKHOVA

# KONTZERTUA:

AZKOITIKo Amabirjinaren  
Jasokundearen Parrokian  
urriak 22, 20:00etan

## EGITARAUA:

Bach's memento. № 6. Mattheus final \* ..... C. M. Widor (1844-1937)

Deux chorals op. 59 ..... Marcel Dupré (1886-1971)

- Freu dich sehr, O meine Seele \*

- Liebster Immanuel, Herzog der Frommen \*

Messe solennelle en ut # mineur op. 16 ..... Louis Vierne (1870-1937)

- Kyrie

- Gloria

- Ave Maria (Marcel Dupré). Sop : María Jaunarena

- Sanctus

- Benedictus

- Agnus Dei

Symphonie-passion op. 23 ..... Marcel Dupré (1886-1971)

- I. Le Monde dans l'attente du Sauveur \*

- O salutaris

(\*) Organoa

Organista: ANA BELÉN GARCÍA  
EASO ABESBATZA  
Zuzendaria: GORKA MIRANDA



# ANA BELEN GARCIA organista

Andoainen jaio zen eta bertan ere hasi zituen bere musika ikasketak. Donostiako Goi-Mailako Musika Kontserbatorioan jarraitu zuen bere piano-prestakuntza eta bertan bukatu zituen pianoko (Cristina Navajas) eta klabizenbaloko (Loreto Fernandez Imaz) goi-mailako ikasketak nahiz organoko erdi mailako ikasketak (Esteban Elizondo).

Donostiako Goi-Mailako Musika Ikastegian, Musikenen, bukatu zituen organo ikasketak, Esteban Landart-ekin eta bere prestakuntza Loïc Mallié-n moduko hainbat irakaslererek osatu zuen; azken horren eskutik inprobazio ikasketak jaso zituen. Hainbat maisuren gomendioa jaso ditu, hala nola Brett Leighton, Michel Bouvard, Joris Verdin, Louis Robilliard, Montserrat Torrent, Jacques van Oortmerssen, Daniel Roth, Wolfgang Zerer, Pieter van Dijk...

'Enrique Lartundo' Fundazioko bekaduna izan da behin baino gehiagotan eta piano eta organo ikasketak sendotu ditu. Pau-ko L'Ecole Nationale de Musique-n 'Mention Tres Bien a l'Unanimité' eskuratu zuen organoaren espezialitatean Jesús Martín Moro maisuarekin.

Bakarlarri eta laguntzaile nazioarteko hainbat jaialditan hartu du parte (España, Belgica, Frantzia, Errusia, Japonia eta Estatu Batuak), estilo eta garai guztiak hartzent dituen musika interpretatz. Musika garaikarekin konpromisoa hartuta, hainbat jaialditan piezak estreinatu ditu: Donostiako Hamabostaldian, Leonen, Croacia eta Libanon.

Egun, Urnieta Lourdes Iriondo musika-eskolako zuzendaria eta Donostiako Easo abesbatzako errepertorista da. Eta Koruko Andre Mariaren basilikako organista titularra izateaz gain, Donostiako Musika Hamabostaldiko Nazioarteko Organo Jaialdiko zuzendaria ere bada.

Nace en Andoain, donde inicia sus estudios musicales. Es en el Conservatorio Superior de San Sebastián donde obtiene los títulos superiores de piano (Cristina Navajas), clavicémbalo (Loreto Fernández Imaz) y grado medio de órgano (Esteban Elizondo). Finaliza sus estudios de órgano en el Centro Superior de Música del País Vasco: Musikene, con Esteban Landart, y completa su formación con diversos profesores como Löic Mallié, del que recibe clases de improvisación. Ha recibido consejos de diferentes maestros, como por ejemplo: Brett Leighton, Michel Bouvard, Joris Verdin, Louis Robilliard, Montserrat Torrent, Jacques van Oortmerssen, Daniel Roth, Wolfgang Zerer, Pieter van Dijk...

Ha sido becada en varias ocasiones por la Fundación Enrique Lartundo en las especialidades de órgano y piano y tras perfeccionar sus estudios de órgano con Jesús Martín Moro en L'Ecole Nationale de Musique de Pau, obtiene la "Mention Tres Bien a l' Unanimité".

Ha participado como solista y acompañante en numerosos ciclos internacionales en España, Bélgica, Francia, Rusia, Japón y Estados Unidos interpretando música que abarca todos los estilos y épocas. Comprometida con las nuevas músicas, ha estrenado piezas en diferentes festivales como el de Quincena Musical, León, Croacia y El Líbano.

Actualmente es directora de la escuela de música Lourdes Iriondo de Urnieta y repertorista del coro Easo de San Sebastián. Y además de ser organista titular de la Basílica Santa María del Coro de Donostia es directora del Festival Internacional de Órgano de Quincena Musical de San Sebastián.



## EASO ahots mistoen abesbatza

2006 urtean sortua, Easo Emakumeen Abesbatzaren ahotsek eta Easo Abesbatzaren ahots grabeek osatua da. Batzuek eta besteek ibilbide zabala eta frogatua egina dute eta bildu egiten dira Easo Abesbatza Mistoan, talde mistoentzat bereziki konposatuak diren opera, kameramusika eta obra sinfoniko-koralaen repertorioa lantzen.

Abesbatzak maiz parte hartu du Donostiako Musika Hamabostaldiaren opera ekoizpenetan: *lolanta* (P.I. Tchaikovsky), *Bahiketa* harenan, *Txirula Magikoa* eta *Figaroren ezteiak* (W.A. Mozart), *La Traviata* (G. Verdi), *Tosca* eta *Madama Butterfly* (G. Puccini), *Mendi-Mendian* (J.M. Usandizaga). Toulouseko Kapitolioko Orkestra Nazionalaren abonu sasoiko P. I. Tchaikovskyren *Eugene Onegin* eta Pariseko Pleyel Aretean 2010. urteko sasoian parte hartu du. Madrilgo Zarzuela Antzokiak ekoitzutako hainbat zarzuelan ere parte hartu du.

Guzti honek, abesbatzari izen handiko hainbat orkestrekin lan egiteko aukera eman dio: Toulouseko Kapitolioko Orkestra Nazionala, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Bilboko Orkestra Sinfonikoa edo Balearetaiko Orkestra. Abesbatzarekin batera aritu diren zuzendarien artean daude Tugan Sokhiev, Leopold Hager, Günter Neuhold, Pietro Rizzo, M. A. Gómez Martínez, Antoni Ros-Marbà, Yi-Chen Lin edo Giuseppe Finzi, besteak beste.

Bere repertorio askotarikoa izaki, osaketa berezia duten kontzertuetan parte hartu du, hala nola 54. Donostiako Jazzaldian, Eri Yamamoto Trioarekin batera "Goshu Ondo Suite" Europaren lehen aldiz interpretatz, eta baita Gorka Hermosa konpositorearen "Urretxutik Mundura" suite sinfoniko-koralaen erabateko estreinaldian.

*Creado en 2006, el Coro Mixto Easo se forma mediante la unión de las voces del Coro de Mujeres Easo y las voces graves del Coro Easo. Dada la extensa y contrastada trayectoria de ambas formaciones, su fusión permite trabajar repertorio sinfónico-coral, de cámara u operístico específicamente pensado para coro mixto.*

*El coro ha participado asiduamente en las producciones de ópera de la Quincena Musical de San Sebastián: *lolanta* (P. I. Tchaikovsky), *El rapto en el serrallo*, *La flauta mágica* y *Las Bodas de Figaro* (W. A. Mozart), *La Traviata* (G. Verdi), *Tosca* y *Madama Butterfly* (G. Puccini), y *Mendi-Mendian* (J.M. Usandizaga). Ha intervenido también en la ópera *Eugene Onegin* de P.I. Tchaikovsky en la temporada de abono de la Orquesta Nacional del Capitolio de Toulouse y en la Temporada 2010 de la Sala Pleyel de París. Ha participado también en diversas zarzuelas producidas por el Teatro de la Zarzuela de Madrid.*

*Esto le ha permitido trabajar con la Orquesta Nacional del Capitolio de Toulouse, la Orquesta Sinfónica de Euskadi, la Orquesta Sinfónica de Bilbao o la Orquesta de Baleares, así como con directores de la talla de Tugan Sokhiev, Leopold Hager, Günter Neuhold, Pietro Rizzo, M. A. Gómez Martínez, Antoni Ros-Marbà, Yi-Chen Lin o Giuseppe Finzi, entre otros.*

*Dado su amplio repertorio, ha participado en conciertos de especial formación, como el estreno europeo de "Goshu Ondo Suite" junto con Eri Yamamoto Trio en el 54. Festival de Jazz de San Sebastián, y el estreno mundial de la suite sinfónico-coral "Urretxutik Mundura" del compositor Gorka Hermosa.*

*Director: Gorka Miranda.*



# KONTZERTUA:

BERGARAKO  
Santa Marina Parrokian  
urriak 8, 20:00etan

## EGITARAUA:

Chorale № 2 en Si mineur *	Cesar Franck (1822-1890)
Panis Angelicus.....	Cesar Franck
Ave Maria .....	Camille Saint-Säens (1835-1921)
Poco Lento *	Cesar Franck
In Paradisum.....	Gabriel Fauré (1845-1924)
Pie Jesu .....	Mary Lynn Lightfoot (1889-1970)
Euskal Sonataren 1.mugimendua *	Aita Madina (1907-1972)
Scherzo *	Aita Madina
Misa en honor a la Virgen del Carmen .....	Josu Elberdin (1976...)
1. Kyrie	
2. Gloria	
3. Sanctus	
4. Agnus Dei	

(\*) Organoa

Organista: AITOR OLEA

BERGARAKO MUSILA ESKOLAKO HAURRAK eta

ORFEOI GAZTEAREN AHOTS ZURIAK

Zuzendariak: VINAIXA GARTZIA, MARIJE UGALDE eta AITOR GARITANO



# AITOR OLEA organista

Durangon jaio zen. Musika ikasketak Arrasaten eta Donostian burutu zituen.

1995ean pianoko Goi-Mailako titulua lortu zuen Bilboko "J.C.Arriaga" Kontserbatorioan ikasle libre moduan.

1991 eta 1997 artean "ENM de Musique de Bayonne" organo ikasketak Mme.Marie Bernadette Carrau-k eman zituen klaseetan. "Medaille d'Or" eta Sari berezia lortuz.

2001ean organo ikasketak konbalidatu zituen Gasteizko "J.Guridi" Kontserbatorioan Jose Ignacio Sanz irakaslearen zuzendaritzapean, ohorezko aipamena eta Goi-Mailako tituloa lortuz.

AUS\_ART records etxearekin 15 CD argitaratu ditu: "Organos de Vasconia", "XXth Century Basque Organ Music", "De música popular vasca", "Julian Sagasta gogoan" eta "Aita Madina Eliz Kantak" bildumetan.

Besteak beste kontzertuak eman ditu: Euskal Herrian, Spainian, Frantziar, Belgikan, Alemaniar, Irlandan, Italian, Inglaterran eta Finlandian.

198 eta 2008 artean Lekeitioko Andra Marien Zeruratzea Basilikak duen 1854.urteko Cavaillé-Coll organuaren organu-jolea izan da.Era berean, Lea-Artibaiko Nazioarteko Organu Jaialdiaren sortzailea izan da.

Gaur egun Bergarako Pedro Deunaren Elizak duen 1889. urteko Stoltz-Frères organuaren organujole titularra da eta Gasteizko " J.Guridi" Kontserbatorioan errepertorioko pianojolea

Nace en Durango. Realiza sus estudios musicales en Arrasate y Donostia.

En 1995 Obtiene el Título Superior de Piano en el Conservatorio superior "Juan Crisóstomo Arriaga" de Bilbao como alumno libre.

Entre 1991 y 1997 estudia órgano en la clase de Mme. Marie-Bernadette Carrau en la ENM de Bayonne (Francia), obteniendo la "Medaille d'Or" y premio especial en interpretación y lectura a primera vista.

En 2001 convalida sus estudios de órgano obteniendo la Mención de Honor y el título de Profesor Superior de Órgano en la clase de Jose Ignacio Sanz del Conservatorio Jesus Guridi de Gasteiz.

Ha grabado 15 CDs con la casa "aus Art records", dentro de las colecciones "Órganos de Vasconia", "XXth Century Basque Organ music", "De música popular vasca", "Julian Sagasta gogoan" y "Aita Madina Eliz Kantak".

Ha ofrecido conciertos en Euskal Herria, España, Francia, Bélgica, Alemania, Inglaterra, Irlanda, Finlandia e Italia.

Entre 1988 y 2008 ha sido organista del Cavaillé-Coll (1854) de la Basílica de Santa María La Asunción en Lekeitio (Bizkaia). De su iniciativa nace el Festival Internacional de Órgano de Lea-Artibai.

Actualmente es organista titular del órgano Stoltz-Frères (1889) de la Iglesia de S.Pedro de Bergara y pianista repertorista del Conservatorio de Música "Jesús Guridi" de Gasteiz.



## BERGARAko ORFEOI GAZTEA

Bergarako Orfeoi Gaztea: 1992z gero Bergarako Orfeoiak gazteen talde bat izan du, belaunaldiko erreleboa eta, beraz, Orfeoiaren jarraipena bermatzeko. Orfeoi Gazteko hasierako zuzendariak Aintzane Arana eta Aitzol Mujika izan ziren. 2002an garai berri batik ekin zioten korukideek eurek, eta David Azurzak hartu zuen zuzendaritzaren ardura. 2006tik aurrera Aitor Biain dugu Bergarako Orfeoi Gazteko zuzendari.

Orfeoi Gazteak abeslari gazteak batu ditu korugintzaren inguruau. Ekitaldi ugari eman dituzte eta baita lehiaketetan parte hartu ere. 2012. urtean Alaitz Urkiak hartuko du Aitor Biain-en erreleboa eta urtebetetze izango da talde gaztearen zuzendari. Azkeneko etapara hurbilduz Nagore Sanz-ek hartzentzu du taldearen ardura 2013. urtean. Hainbat kontzertu eta ekitaldi berezi eskainiz (Gospel, Roquiem, topaketak...). 2017. urtetik aurrera Aitor Garitano Bergarar gaztea izango da Orfeoi Gazteko zuzendari berria, gaur egungo taldearen arduradun. Azkenengo bi urteetako jarduerari dagokienez, kontzertuak, lehiaketak, ekitaldiak Orfeoiarekin batera, elkartrukeak beste abesbatza batzuekin.. izan dira nagusi.

*Orfeoi Gazte de Bergara: desde 1992 el Orfeón Bergara ha contado con un grupo de jóvenes para garantizar el relevo generacional y, por tanto, la continuidad del Orfeón. Las directoras iniciales del Orfeoi Gaztea fueron Aintzane Arana y Aitzol Mujika. En 2002 los propios coralistas iniciaron una nueva época en la que David Azurza se hizo cargo de la dirección. Desde 2006 Aitor Biain dirige el Orfeoi Gaztea de Bergara.*

*El grupo ha unido a jóvenes cantantes en torno a la producción coral. Han retransmitido numerosos eventos y también han participado en concursos. En 2012 Alaitz Urkia relevará a Aitor Biain y dirigirá el equipo juvenil durante un año. Acerándonos a la última etapa Nagore Sanz se hace cargo del grupo en el año 2013. Conciertos y eventos especiales (Gospel, Roquiem, Encuentros). A partir de 2017, Aitor Garitano será el nuevo director de la agrupación. En cuanto a la actividad de los dos últimos años, han predominado los conciertos, concursos, eventos con el Orfeón e intercambios con otros coros.*



## BERGARAko MUSIKA ESKOLAko haurren abesbatza

Haurren abesbatza, Bergarako Musika Eskolaren baitan sortu zen 1987an. Bergarako Musika Eskolako ikasleen formakuntza, ahots eta abesbatzaren prestakuntzarekin osatzea, helburu nagusietako bat zan.. Horrez gain, Bergarako abesbatzentzako (Aritzeta abesbatza eta Bergarako Orfeoia) Kantarien harrobia izatea da beste helburuetako bat. Izen ere, gaur egun 13 urtekin Bergarako Orfeoi Gaztean kantuan jarraitzen aukera daukate gure ikasleek.

Hasieratik 2007-08 ikasturteria arte, Cristina Larrañagak zuzendu zuen. 2008-09an Marije Ugalde hartuko zuen lekukoa eta 2009-10 ikasturtean, abesbatzan ikasle kopurua asko handitu zenez, Nagore Sanz zuzendarikide gisa hasi zen lanean, eta gaur egun kargu horretan jarraitzen du.

Gaur egun 9-13 urteko, 40 haur osatzen dute abesbatza. Eskolako kontzertu handietan, Gabonetako Kontzertuan, Apirilean Musikan eta Udaberriko kontzertuan parte hartzeaz gain, Beasainen, Usurbilen, Azpeitin, Aranzazun.... herri ezberdinetan, eman ditu kontzertuak. Gipuzkoako abesbatzen federazioak 1994an eta 1998an Donostian antolatutako bi kantatetan parte hartu zuen. Ohikoa da Gipuzkoako abesbatzen federazioak sustatutako abesbatzen topaketetan, eta Bergaran sustatutako musical handi guztietan parte hartu du: Miserableak, Oliver...

2014an, Erreenterian egiten den Gabonetako haur abesbatzen lehiaketan lehen saria jaso zuten.

Horrez gain, beste diziplina artistiko batzuekin lankidetzen aritzeko proiektuetan parte hartu du.

*El coro infantil nació en 1987 en el seno de la Escuela de Música de Bergara, con el objetivo principal de complementar los estudios musicales de sus alumnos con formación vocal y coral. Además, otro de los objetivos es crear cantera para los coros de Bergara, Aritzeta abesbatza y Orfeón bergarés. De hecho, hoy en día nuestros alumnos tienen la oportunidad de seguir cantando con 13 años en el Orfeón Joven de Bergara.*

*Desde sus inicios hasta el curso 2007-08, fue dirigido por Cristina Larrañaga. En 2008-09 tomaría el relevo Marije Ugalde y en el curso 2009-10, debido al aumento de alumnos en el coro, Nagore Sanz comenzó a trabajar como codirectora y actualmente continúa en ese cargo.*

*En la actualidad, el coro se compone de 44 niños de 9 a 13 años*

*Además de participar en los grandes conciertos de la escuela, Concierto de Navidad, Apirilean Musika y en el Concierto de Primavera, ha ofrecido conciertos en Beasain, Usurbil, Azpeitia, Arantzazu... en diferentes localidades. Participó en las dos cantatas organizadas por La federación coral guipuzcoana en 1994 y 1998 en San Sebastián. Es habitual en los encuentros corales promovidos por la federación de coros de Gipuzkoa y ha participado en todos los grandes musicales promovidos en Bergara: Miserableak, Oliver...*

*En 2014 se alzaron con el primer premio en el certamen de navidad de coros infantiles que se celebra en Rentería.*

*Además, ha participado en proyectos de colaboración con otras disciplinas artísticas.*

# KONTZERTUA:

BERGARAko  
Santa Marina Parrokian  
urriak 15, 20:00etan

## EGITARAUA:

Sonata en Si bemol mayor K.358/186c..... Wolfgang Amadeus Mozart  
Allegro - Adagio - Molto presto  
(Salzburgo 1756 - Viena 1791)

Improvisación ..... Monica Melcova  
Mosaïque de temas de Mozart  
(Spiš Eslovaquia 1974)

Divertimento en Fa mayor K.213 ..... Wolfgang Amadeus Mozart  
Allegro spiritoso - Andante - Menuetto - Contredanse en rondeau: Molto allegro

1ºCoral en Mi mayor ..... César Franck  
(Liège 1822 - Paris 1890)

Vals de las flores\* ..... Piotr Illich Chaikovski  
del ballet «Cascanueces»  
(Vótkinsk 1840 - San Petersburgo 1893)

Organista: ALIZE MENDIZÁBAL eta MONICA MELCOVA



# ALIZE MENDIZABAL organista

Donostian jaioa, piano- eta klabizenbalo-ikasketak hasi zituen, bere jaioterriko Goi Mailako Musika Kontserbatorioan. Gero, Conservatoire Nationale de Région de Bayonne (Frantzia) hasi zituen organo-ikasketak, Bernadette Carreau irakaslearekin. Kontserbatorio horretan bertan bukatu zituen ikasketak, Esteban Landart irakaslearekin, eta Urrezko Domina eta Hobekuntzaren Lehen Saria lortu zituen.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren beka jaso zuen, eta Toulouseko (Frantzia) Goi Mailako Musika eta Dantza Ikastegira joan zen (C.E.S.M.D.), organoaren alorreko hobekuntza-ikasketak egitera. Lehen Saria jasota bukatu zituen ikasketa horiek (Mention Très Bien à l'Unanimité du Jury).

Organo-bakarlari, Europan, Asia zein Amerikan egin ditu emanaldiak. Barrokotik hasi eta XX. mendera arteko programak landu ditu, eta hainbat jaialditan hartu du parte.

Conductus Ensemble taldeko organo-jotzailea da, 2002az geroztik. Musika barrokoa jotzen du taldeak. Festival Internacional Toulouse les Orgues jaialdiko irekiera-kontzertua eman zuten, 2017an, Saint Serningo Cavallé-Coll Organo Handiaren aurkezpen-emanaldian, hain zuzen ere, hora zaharerritu ostean; Durufléren Requieja jo zuten. Gainera, Errenteriako Andra Mari Abesbatzako organo-jotzaile titularra da, eta beste hainbat abesbatza ere lagundu ditu, hala nola Easo abesbatza edo Donostiako Orfeoia.

2002-2003 ikasturteaz geroztik, irakaslea da Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian. Gainera, organo-irakaslea izan da Baionako CNRn (Frantzia).

Gaur egun, Erdi Aroko Musikako ikasketak egiten ari da, CIMM Valldigna ikastegian, Cristina Alís Raurich irakasle duela. 2009an, Donostiako Andre Mariaren Basilikako Cavallé-Coll (1863) organo handiaren jotzaile titular izendatu zuten.

Nacida en San Sebastián, comienza sus estudios de piano y clavicémbalo en el Conservatorio Superior de Música de su ciudad natal. Posteriormente, ingresa en el Conservatoire National de Région de Bayonne (Francia) donde inicia sus estudios de órgano con la profesora Bernadette Carreau. En dicho conservatorio, finaliza sus estudios con el profesor Esteban Landart obteniendo la Medalla de Oro y el Primer Premio de Perfeccionamiento.

Becada por la Diputación Foral de Gipuzkoa ingresa en el Centro de Estudios Superiores de Música y Danza de Toulouse (C.E.S.M.D.) para cursar estudios de perfeccionamiento de órgano, que finaliza obteniendo el Primer Premio (Mention Très Bien à l'Unanimité du Jury).

Como solista de órgano ha ofrecido a lo largo de Europa, Asia y América ofreciendo programas que van desde el barroco al siglo XX, tomando parte en varios festivales.

Como organista de agrupación, es componente del grupo de música barroca Conductus Ensemble desde el año 2002 junto a quienes en el año 2017 protagonizó el Concierto Inaugural del Festival Internacional Toulouse les Orgues, concierto de presentación del Gran Órgano Cavallé-Coll de Saint Sernin tras su restauración interpretando el Réquiem de Duruflé, es organista titular de la Coral Andra Mari de Rentería y además ha acompañado a otros muchos otros coros como el Coro Easo o el Orfeón Donostiarra. Desde el curso 2002/2003 es profesora en el Conservatorio Superior de Música del País Vasco, Musikene.

Actualmente cursa estudios de Música Medieval en el CIMM Valldigna de la mano de Cristina Alís Raurich.

El año 2009 fue nombrada organista titular del gran órgano Cavallé-Coll (1863) de la Basílica de Santa María de San Sebastián.

# MONICA MELCOVA organista



Eslovakiarra jaiotzez, 5 urte zituela hasi zen musika jotzen. Bere jaioterrian piano- eta organo-ikasketak egin ostean, Vienako Musika eta Arte Dramatikoko Unibertsitatean hasi zen, eta organo-ikasketak egin zituen, Michael Radulescu irakaslearekin. Magistra Artium gradua lortu zuen, Ohorezko Aipamenarekin eta Austriako Gobernu Federalaren Bikaintasun Sariarekin.

Gero, Parisko Goi Mailako Musika Kontserbatorio Nazionalean hasi zen hobekuntza-zikloan, eta Olivier Latry eta Michel Bouvard izan zituen irakasle. Meyer Fundazioaren eta Société Générale elkartearren Mezenasgo Musikalaren beka jaso zituen. Horietaz gain, Nadia et Lili Boulanger Nazioarteko Fundazioak beka bat eman zion inprobisazio-ikasketak egiteko, Lyongo Goi Mailako Kontserbatorio Nazionalean, Loïc Mallié irakaslearen zuzendaritzapean.

Arrakasta handiz hartu du parte zenbait lehiaketan: Ohorezko Diploma, Brujasko Jaialdian (1997); Ikusleen Saria, Žilinako Jaialdian (1998); eta Sari Berezia, UNESCOren Lisboako Jaialdian (2000). 2002/03 artean, Sapporo Concert-Hall aretoko (Japonia) organo-jotzaile egoilar titularriz izendatu zuten, eta kontzertu-emaile eta irakasle aritu zen. Emanaldiak egin zituen herrialdeko kontzertu-areto nagusietan.

Maiz izan da epaimahaikide, bestek beste, Grand Prix de Chartres eta Concours de l'orgue de Luxembourg lehiaketetan.

Gaur egun, inprobisazio-irakaslea da, Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian, Donostian, eta organo-irakaslea, Royal Danish Academy of Music ikastegian, Kopenhagen.

2021ean, « Chercheurs d'Orgues » dokumentala grabatu zuen, Schuch Production etxearekin, ARTE telebista-katearentzat.

*Natural de Eslovaquia, se inicia en la música a la edad de 5 años. Tras estudiar piano y órgano en su país natal, ingresa en la Universidad de Música y Arte Dramático de Viena, donde estudia órgano con Michael Radulescu, finalizando con la obtención del grado Ma-gistra Artium con Mención de Honor y el Premio de Excelencia del Gobierno Federal austriaco.*

*Posteriormente entra en el Conservatorio Nacional Superior de Música de París en Ciclo de Perfeccionamiento, recibiendo las enseñanzas de Olivier Latry y Michel Bouvard, siendo becada por la Fundación Meyer y el Mecenazgo Musical de la Société Générale. Asimismo, la Fundación Internacional Nadia et Lili Boulanger le concede una beca para realizar sus estudios de improvisación en el Conservatorio Nacional Superior de Lyon bajo la dirección de Loïc Mallié.*

*Ha participado con éxito en varios concursos: Diploma de Honor en el Festival de Brujas (1997), Premio del Público del Festival de Žilina (1998), Premio Especial en el Concurso de la UNESCO en Lisboa (2000). Durante el periodo 2002/03 fue nombrada organista titular en residencia del Sapporo Concert-Hall (Japón) en calidad de concertista y profesora, ofreciendo recitales en las principales salas de concierto del país.*

*Regularmente ha sido invitada como miembro del jurado del concurso internacional "Grand Prix de Chartres", Concours de l'orgue de Luxembourg, entre otros..*

*Actualmente es profesora de improvisación en el Centro Superior de Música del País Vasco "Musikene" en San Sebastián y profesora de órgano en Royal Danish Academy of Music in Copenhagen.*

*En 2021 ha grabado un documental con la Schuch Production para la cadena ARTE « Chercheurs d'Orgues »*



# KONTZERTUA:

BERGARAko  
Santa Marina Parrokian  
urriak 22, 20:00etan

## EGITARAUA:

\*Orgelsonate f-moll, Op. 65 Nr. 1 ..... *F. Mendelssohn (1809-1847)*

1. Allegro moderato e serioso
2. Adagio
3. Andante
4. Allegro assai vivace

Suite de danses en Mi mineur ..... *J.M. Hotteterre (1674-1763)*

1. Prélude
2. Allemande
3. Sarabande
4. 1.er Menuet et II.er Menuet
5. Gavotte
6. Rondeau
7. Gigue

\* Fantaisie pour grand orgue, Op. 101 Nr. 2 ..... *C. Saint-Saëns (1835-1921)*

Euskal suite I ..... *T. Garbizu (1901-1989)*

1. Kontrapasa
2. Minuetoa
3. Fandango boleroa

Le sommeil de l'ange ..... *G. Cuesta (1969-)*

Concerto pour txistu ..... *N. Hakim (1955-)*

1. Allegro moderato
2. Mesto
3. Presto

(\*) Organoa

Organista: **IGNACIO ARAKISTAIN**

Txitxua: **PEIO IRIGOIEN**



# IGNACIO ARAKISTAIN organista

Ignacio Arakistain Agirre Azpeitia jaio zen, 1998an. Musika munduan bere lehen pausuak herriko Juan de Antxeta musika eskolan eman zituen. Ondoren, bere ibilbidea, Donostiako Francisco Escudero erdi mailako kontserbatorioan jarraitu zuen, Junkal Guerrero irakaslearekin piano ikasketak eginez. Bere herrian hasi zituen, baita ere, organo ikasketak, Jose Luis Frantzesena irakaslearekin. Saritua izan da Euskal Herriko Musikari Gazteen lehiaketako tekla kategorian eta Donostia Hiria sarketan, berriz, Enrique Lartundo fundazioaren aipamen berezia jaso zuen. Burgosen ospatutako III. Francisco de Salinas Organo Lehiaketa Nazionalean hirugarren postua lortu zuen, bestalde. Kalifikazio gorenakin amaitu zituen 2021ean bere ikasketak Musikene, Euskal Herriko goi mailako musika ikastegian, Esteban Landart, Loreto F. Imaz, Monica Melcova edo Karol Mossakowski maisuekin lan egin ostean. Etengabea izan da bere parte hartza hainbat proiektu kulturaletan eta 2019an bere lehen konposizioak Galerak proiektuaren baitako diskan kaleratu zituen. Ganberamuskaren alorrean, nabarmentzeoak dira Garazi Navas akordeoi-jolearekin zein Peio Irigoyen txistulariarekin gauzatutako proiektuak. Bestalde, 2022ko urtarrilean VI. Donostiarra Orfeoia-Musikene Saria jaso zuen, Valentín Larrea (1876-1970) konposatzialeari buruz eginiko lanagatik. Uneotan, Vienako Musika eta Arte Dramatiko Unibertsitatean bere masterreko ikasketak burutzen dihardu, Pier Damiano Peretti maisuarekin.

Ignacio Arakistain Agirre nació en Azpeitia en 1998. Allí fue donde dio sus primeros pasos en el mundo de la música, empezando a tocar el piano a los 7 años. Continuó su formación pianística en el conservatorio Francisco Escudero de San Sebastián, con la profesora Junkal Guerrero. Al mismo tiempo, comenzó a tocar el órgano bajo la dirección del profesor Jose Luis Frantzesena. Ha sido premiado en el concurso Jóvenes Músicos de Euskadi en la categoría de tecla y en el Concurso de Piano Ciudad de San Sebastián por la fundación Enrique Lartundo. Ha participado en diversos ciclos de música como la Quincena Musical de San Sebastián, el Ciclo de Órgano Romántico de Guipúzcoa, el ciclo Bizkaiko Hotsak o el Ciclo de Música para Órgano en Navarra, entre otros. Finalizó con las más altas calificaciones los estudios de órgano en el Centro Superior de Música del País Vasco, Musikene, con los profesores Esteban Landart, Monica Melcova y Karol Mossakowski, entre otros. Su participación en proyectos culturales ha sido continua, destacando el disco Galerak publicado en 2019 con composiciones propias. En el campo de la música de cámara caben destacar sus trabajos con el txistulari Peio Irigoyen y la acordeonista Garazi Navas. Asimismo, en enero de 2022 fue premiado con el VI. Premio Orfeón Donostiarra-Musikene por su trabajo sobre la figura del compositor Valentín Larrea (1876-1970). Actualmente se encuentra realizando sus estudios de máster en la Universidad de Música y Arte Dramático de Viena junto al maestro Pier Damiano Peretti.

# PEIO IRIGOIEN txistua



Irunen jaio zen 1992an eta bertako musika eskolan tronpetta eta txistu ikasketak hasi zituen Miguel Echepare eta Iñaki Irazokiarekin, hurrenez hurren. Tronpetta ikasketak bertan jarraitu bazituen ere, txistu ikasketak Donostiarra Musika Eskolan sakondu zituen, Aitor Arozenaren gidaritzapean. Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegian amaitu zituen bere txistu ikasketak Aitor Amilibia maisuarekin. Irakasle lanetan jardun du azken urteotan Oiartzungo Soinuenean zein Bergarako Musika Eskolan. Arlo akademikotik at esperientzia zabala duen musikaria da. Inguruko zein atzerriko talde, pop-rock banda, koru eta dantza taldeekin aritu da. Bakarlari lanetan hainbat emanaldi eskaini ditu, haien artean Irun Hiria Musika Bandarekin, Donostiarra Udal Txistulari Bandarekin edota Hondarribiko Txistulari Bandarekin. Irun Hiria Musika Bandako tronpetista izanik, Kemen Dantza Taldeko musikarien ardura eta Irungo Txistulari Bandaren zuzendaritza lanak uztartzen ditu gaur egun, Bilboko Udal Txistulari Bandarekin lanean diharduen bitartean.


Nacido en Irun en 1992, comenzó sus estudios de trompeta y txistu en la escuela de música local con Miguel Echepare y Iñaki Irazoki, respectivamente. Aunque continuó sus estudios de trompeta, profundizó sus estudios de txistu en la Escuela de Música de San Sebastián bajo la dirección de Aitor Arozena. Realizó sus estudios superiores de txistu en el Centro Superior de Música del País Vasco, Musikene, con el maestro Aitor Amilibia. Durante los últimos años ha ejercido la docencia musical en los centros Soinuenea de Oiartzun y la Escuela de Música de Bergara. Al margen del ámbito académico, cuenta con una dilatada experiencia, actuando junto a diversos grupos, coros y bandas de la zona como del extranjero. En su faceta de solista ha ofrecido varias actuaciones, entre ellas con la Banda de Música Ciudad de Irun, la Banda Municipal de Txistularis de Donostia o la Banda de Txistularis de Hondarribia. En la actualidad compagina la responsabilidad del grupo Kemen Dantza Taldea con las labores de dirección de Irungo Txistulari Banda. Además de ello, se encuentra actualmente trabajando con la Banda Municipal de Txistularis de Bilbao.



KONTZERTUA:

BERGARAko  
Santa Marina Parrokiian  
urriak 29, 20:00etan

AZPEITIKO  
JUAN DE ANTXIETA  
eta  
BERGARAKO  
MUSIKA ESKOLETAKO  
ORGANO IKASLEAK



## EGITARAUA:

ORGANOAN: **Itxaso Alberdi**

Troisième Choral ..... *C. Franck*

ORGANOAN: **Anaitz Lizartza**

Piece Heroique ..... *C. Franck*

ORGANOAN: **Eugenio Etxebeste eta Lorea Larrañaga**

Deux Versets de Procession sur l'Adoro te devote..... *Léon Boëllmann*

ORGANOAN: **Leo Joaristi**

Les enfants de Dieu ..... *Olivier Messiaen*

ORGANOAN: **Elena Laka**

Trois Improvisations ..... *Nadia Boulanger*

- Prélude
- Petit Canon
- Improvisation

# KONTZERTUA:

AZPEITIKO  
Loiolako Basilikan  
urriak 7, 20:00etan

## EGITARAUZA:

- 1er Choral de Franck en Mi mayor ..... *César Franck*  
4 Esquisses Op 58 ..... *Robert Schumann*  
Scherzo Op 2 ..... *Maurice Duruflé*  
Final d'Evocation Op 37 ..... *Marcel Dupré*  
Improvisation ..... *David Cassan*

Organista: DAVID CASSAN



## DAVID CASSAN organista

David Cassan musikari eklektikoa da, eta ospetsua nazioartean. Organo-jotzaile frantses gazte ezagunenaren artean dago. Caengo Kontserbatorioan eta Parisko eta Lyongo Kontserbatorio Nazionaletan ikasi zuen. Solista-lanak egin ditu musika-talde entzutetsuetan, Frantzian nahiz atzerriko beste hainbat herrialdetan.

David Cassanek aitortza handia du, eta kritikaren txaloak jaso ditu. Organorako erreperitorioaren defendatzaile irmoa da, eta bereziki maite ditu Johann Sebastian Bachen obra, eta XIX. eta XX. mendeko kompositore frantsesak. Inprobisatziale sutsua eta sortzailea, sarri jotzen du organoa edo pianoa film mutuetan.

David Cassanek lehenbiziko sari ugari jaso ditu nazioartean, hala nola Chartres-en (Francia), St Albans-en (Ingalterra) eta Haarlem-en (Herbehereak), bai eta Arte Ederren Akademiako (Francia) Jean-Louis Florentz Sari Handia ere. Bere belaunaldiko organo-jotzalerik sarituinetako bat da.

Pedagogo ospetsua da, eta eskola magistrak eman ditu mundu osoan barrena (San Petersburgo, Pekín, Berna, Milan, Lausana, Madrid, Zagreb, París...). David Cassanek organoa irakasten du, Nancyko Kontserbatorioan, bai eta inprobisazioa ere Saint-Maur-des-Fossés-ko Kontserbatorioan. Sarri gonbidatzen dute Frantziako eta nazioarteko lehiaketetako epaimahietar.

Gaur egun, Parisko Louvreko Oratorioko Organo Nagusiaren titularra da.

Músico ecléctico de reputación internacional, David Cassan forma parte de la nueva generación de organistas franceses. Se ha formado en el Conservatorio de Caen y en los Conservatorios Nacionales Superiores de Música de París y de Lyon. También ha sido solista en conjuntos musicales de prestigio.

Intérprete reconocido y aclamado por la crítica, David Cassan es un firme defensor del repertorio para órgano, con una predilección por la obra de Johann Sebastian Bach y los compositores franceses de los siglos XIX y XX. Improvisador apasionado y creativo, acompaña de manera regular las películas mudas al órgano o al piano.

David Cassan ha cosechado una decena de premios internacionales, como los de Chartres (Francia), St Albans (Inglaterra) y Haarlem (Países Bajos), así como el Gran Premio Jean-Louis Florentz de la Academia de Bellas Artes (Francia). Estas numerosas distinciones le convierten en uno de los organistas más galardonados de su generación.

Pedagogo de renombre, ha impartido clases magistrales por todo el mundo (San Petersburgo, Pekín, Berna, Milán, Lausana, Madrid, Zagreb, París...). David Cassan es profesor de órgano en el Conservatorio de Nancy, así como profesor de improvisación en el Conservatorio de Saint Maur-des-Fossés. También es jurado habitual de concursos nacionales e internacionales.

Actualmente, David Cassan es titular del Gran Órgano del Oratorio del Louvre en París.

# KONTZERTUA:

AZPEITIKO  
Loiolako Basilikan  
urriak 14, 20:00etan

## EGITARAUA:

Adagio and fugue in c minor KV546\* ..... Wolfgang Amadeus Mozart ( 1756-1791)

Chorale Nº2 ..... César Franck (1822-1890)

Organista : Loreto F. Imaz.

Hymn to a Great City\* ..... Arvo Pärt ( 1935 - )

Pièce Heroïque ..... César Franck ( 1822-1890)

Organista : Itziar Urbieta Beobide.

Suite Gynt op. 46\* ..... Edvard Grieg (1843-1907)

- Morning Mood
- Ase's Death
- Anitra's Dance
- In the Hall of the Mountain King

Perkusioa: [Anaitz Lizartza](#), [Itxaso Alberdi](#), [Ander Urbieta](#), [Iñaki Urbieta](#)

(\*) Lau eskutara

Organista: [LORETO F. IMAZ](#) eta [ITZIAR URBIETA](#)



**LORETO  
F. IMAZ  
organista**

Organo- eta klabezin-jotzailea, Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioko katedradun emeritua.

40 urtetik gorako esperientzia du kontzertuetan, grabazioetan eta irakaskuntzan.

Hainbat eta hainbat ikasle izan ditu, eta horietako asko profesional handiak dira gaur egun, "Zer poza!".

Asko eskertzen die izandako irakasle handiei, eta ikasten eta jotzen jarraitzen du, musika maite duelako.

Burgosko Francisco Salinas Organo Lehiaketa Nazionaleko epaimahaikidea da, bai eta Gipuzkoako elizbarrutiko Organoak eta Harmoniumak Zaharerritzeko Batzorde Teknikoko kidea ere.

Organista y clavecinista, catedrática emérita del Conservatorio Superior de Donostia-San Sebastián.

Más de 40 años de conciertos, grabaciones y enseñanzas.

Innumerables discípul@s, algunos, a día de hoy, grandes profesionales;"¡Qué satisfacción!"

Muy agradecida a sus grandes maestr@s, continúa estudiando y tocando por amor a la música.

Es miembro del Jurado en el Concurso Nacional de Órgano "Francisco Salinas" de la ciudad de Burgos, así como de la Comisión Técnica para la restauración de órganos y armoniums de la diócesis de Gipuzkoa.

# ITZIAR URBIETA organista



Azpeitian jaioa (1972).

Donostiako kontserbatorioan, organoko ikasketak egin zituen Esteban Elizondo organojolearekin.

Donostiako Musika Hamabostaldiaren barruan, Organo Erromantikoaren Nazioarteko hainbat ikastarotan parte hartu du; Louis Robilliard, Daniel Roth eta Michel Bouvard organista eta maixuen eskuak.

Organoko ikasketak sakondu ditu, Loreto Fernández Imaz organistarekin.

Gaur egun, organistaz gain, irakaskuntzan ere dihardu; Getariako Pepita Enbil musika eskolan eta Bilboko Koral Elkartean, organoko irakasle delarik. "Fray Joseph Echevarría" organo elkarteko kide da. Loiolako Basilikako Cavaillé-Coll organoko titularra da, 2011. urtez geroztik, bertako lanak kontzertuekin tartekatuz.

Nació en Azpeitia (1972).

Cursó estudios de órgano en el Conservatorio de San Sebastián, con el organista Esteban Elizondo.

Dentro de la Quincena Musical de San Sebastián, ha participado en varios cursos internacionales de Órgano Romántico, impartidos por los organistas y maestros Louis Robilliard, Daniel Roth y Michel Bouvard.

Ha profundizado en sus estudios de órgano con la organista Loreto Fernández Imaz.

Actualmente, además de su trabajo como organista, es profesor de órgano en la Escuela de Música Pepita Enbil de Getaria y en la Sociedad Coral de Bilbao, y es miembro de la asociación de amigos del órgano "Fray Joseph Echevarría". Desde el año 2011, es el titular del órgano Cavaillé-Coll de la Basílica de Loiola, compaginando esa labor con otros conciertos.



# KONTZERTUA:

AZPEITIKO  
Loiolako Basilikan  
urriak 21, 20:00etan

## EGITARAUZA:

- Madrigal dans le style ancien Op. 4 ..... *Pièce Hé- Vincent d'Indy (1851-1931)*  
Cantabile\* FWV 36 ..... *César Franck (1822-1890)*  
La Vierge à la crèche FWV 89 ..... *César Franck*  
Nocturne FWV 85 ..... *César Franck*  
Incantation pour un jour Saint\* Op. 64 ..... *Jean Langlais (1907-1991)*  
Trois prières Op. 65 ..... *Jean Langlais*  
- Ave Verum  
- Ave Maris Stella  
- Tantum Ergo  
Le jardin suspendu\* JA 71 ..... *Jehan Alain (1911-1940)*  
Les Angélus – Tryptique pour chant et orgue Op. 57 ..... *Louis Vierne (1870-1937)*  
- Au Matin  
- Au Midi  
- Au Soir  
L'Ange a la trompette\* ..... *Jacques Charpentier (1933-2017)*

(\*) Organoa

Organista: XABIER URTASUN

Sopranoa: RITA MORAIS



# XABIER URTASUN organista

Xabi Urtasun Eraso Irurita herrian (Nafarroa) jaio zen. Zenbait instrumentutan trebatzeko ikasketak egin eta Pedagogiako espezialitatean Musikako Goi Mailako Titulua lortu ondoren, tekla-instrumentuetarako hainbat garaitako musikaz interesa piztu eta organoaren espezialitatean trebatu zen, Loreto Fernández Ímaz eta Esteban Landart irakasleekin Donostian, eta Jürgen Esslein Stuttgart. Bertan, Goi Mailako Ikasketak amaitu zituen 2021ean, kalifikazio gorenak.

Besteak beste, Joris Verdin, Daniel Roth, Michel Bouvard, Michael Radulescu, Montserrat Torrent, Jeremy Joseph eta Maria Luisa Baldassari-ren eskola magistralko jaso ditu.

Organoan zein klabezinean baxu jarraitua ikasi zuen Loreto Fernández Ímaz, Jörg-Hannes Hahn eta David Fasold-ekin.

2019an, hirugarren saria irabazi zuen Ochsenhauseneko (Alemania) Joseph Gabler nazioarteko lehiaketan. Bakarlari gisa kontzertuak eman ditu Espanian, Frantzian eta Alemanian, eta organo-jotzaile eta zenbalo-jotzaile gisa hainbat talderenkin hartu du parte. 2021ean, Olivier Messiaen-en obra integralaren grabazioan hartu du parte, Toulgo (Frantzia) katedralaren zortzigarren mendeurrenena ospatzeko.

Gaur egun, Organo Masterra egiten ari da Jürgen Esslein, bai eta Klabezineko Goi Mailako Ikasketak ere Jörg Halubek-ekin Stuttgarter Hochschule für Musik und Darstellende Kunst eskolan. Horrez gain, klabezineko eskolak jasotzen ari da Luca Guglielmi-rekin, Bartzelonan.

Xabi Urtasun Eraso nació en Irurita (Nafarroa). Tras realizar estudios en otros instrumentos y obtener el Título Superior de Música en la especialidad de Pedagogía, se interesa por la música para tecla de diversas épocas y se forma en la especialidad de órgano con los profesores Loreto Fernández Ímaz y Esteban Landart en San Sebastián, y con Jürgen Essl en Stuttgart, donde finalizó sus estudios superiores en 2021 con las máximas calificaciones.

Ha recibido clases magistrales de Joris Verdin, Daniel Roth, Michel Bouvard, Michael Radulescu, Montserrat Torrent, Jeremy Joseph, María Luisa Baldassari, entre otros.

Estudia con especial interés el bajo continuo, tanto en órgano como en clavecín, con Loreto Fernández Ímaz, Jörg-Hannes Hahn y David Fasold.

En 2019 ganó el tercer premio en el Concurso internacional Joseph Gabler de Ochsenhausen (Alemania). Ha ofrecido conciertos como solista en España, Francia y Alemania, y ha participado como organista y cembalista con diferentes formaciones. En 2021 ha participado en la grabación de la obra integral de Olivier Messiaen en conmemoración de los 800 años de la Catedral de Toul (Francia).

En la actualidad cursa Máster de Órgano con Jürgen Essl y los Estudios Superiores de Clavecín con Jörg Halubek en la Hochschule für Musik und Darstellende Kunst de Stuttgart, además de recibir clases de clavecín de Luca Guglielmi, con este último en Barcelona.

# RITA MORAIS sopranoa

Rita Morais Braga hirian (Portugal) jaio zen, eta bertan hasi zituen musika-ikasketak Calouste Gulbenkian Musika Kontserbatorioan; hasieran, biolako ikasketak egin zituen, eta geroago kantukoak.

Ondoren, Oportoko Escola Superior de Música e Artes do Espetaculo (ESMAE) eskolan kantuan trebatu zen, Antonio Salgadorekin. Prestakuntza akademikoa Kataluniako Goi Mailako Musika Eskolako "Victoria de los Ángeles" Lied Masterrarekin amaitu zuen.

Hainbat jaso ditu: Lisboako Calouste Gulbenkian Fundazioarena (2016-2018), Spainiako Sociedad de Artistas, Intérpretes y Ejecutantes elkartearena (2020) eta Victoria de los Ángeles Fundazioarena (2020).

Aldizka kontzertuak eta errezitalak ematen ditu Portugalen eta Spainian, honako erakunde hauekin elkarlanean, besteak beste: Casa da Música (Porto), Estúdios Victor Cordon/Companhia Nacional de Bailado, Fundação Calouste Gulbenkian (Lisboa), Spainiako Koru Nazionala eta Errege Antzokiko Abesbatza (Madril), Victoria de los Ángeles Fundazioa eta Festival Bachcelona (Bartzelona).

2021ean, Salvat Fundazioaren Salvat Beca Bach 2022 Solista Saria jaso zuen. 2023an, solista gisa egin zuen debuta Gran Teatre del Liceun, C. Monteverdiren "L'Incoronazione di Poppea" operan, Jordi Savall eta Calixto Bieitoren zuzendaritzapean.



*Rita Morais nació en Braga (Portugal), ciudad donde comenzó sus estudios musicales en el Conservatorio de Música Calouste Gulbenkian en viola y, más tarde, en canto.*

*A continuación, se va a formar en canto en la Escola Superior de Música e Artes do Espetaculo (ESMAE) de Oporto con Antonio Salgado. Completa su formación académica en el Máster de Lied "Victoria de los Ángeles" de la Escuela Superior de Música de Catalunya.*

*Becada por la Fundación Calouste Gulbenkian de Lisboa (2016-2018) por la Sociedad de Artistas, Intérpretes y Ejecutantes de España (2020) y por la Fundación Victoria de los Ángeles (2020).*

*Regularmente realiza conciertos y recitales en Portugal y España, colaborando con entidades como Casa da Música (Oporto), Estúdios Victor Cordon/Companhia Nacional de Bailado, Fundação Calouste Gulbenkian (Lisboa), Coro Nacional de España y Teatro Real (Madrid), Fundación Victoria de los Ángeles y Festival Bachcelona (Barcelona).*

*En 2021 recibe el Premio Solista Salvat Beca Bach 2022 de la Fundación Salvat. En 2023 debutó como solista en el Gran Teatre del Liceu en "L'Incoronazione di Poppea" de C. Monteverdi, bajo la dirección de Jordi Savall y Calixto Bieito.*



## ESKERTZA ONDOKO PARROKIEI:

- Azkoitiko Amabirjinaren Jasokundea
- Bergarako Santa Marina
- Loiolako Basilika (Azpeitia)



Azpeitia  
Denontzat



Fray Joseph  
Echevarria  
Elkartea

